

COVID-19 NEWSLETTER

Txekiar Errepublika 2020/06/03



INPAKTU EKONOMIKOA

Makro datuak

<p>BPGaren bilakaeraren aurreikuspena 2020an % -4 eta % -7 bitartean Egungo murrizketa: % -3,6 aurreko hiruhilekoarekin alderatuta</p>	<p>Inflazioa gaur egun % 3,1 2020rako aurreikuspena: % 2,3</p>
<p>Kanbio-tasa (azken astean) 26,65 CZK/EUR</p>	<p>Langabezia tasa Aurreikuspenen arabera, % 5-10erainokoa; apirilean % 3,4 baino handiagoa izan da (2020ko urtarrilean: 2,1%)</p>

Inpaktua sektore industrialetan

Industriak % 8,7ko beherakada izan du 2020ko martxoan, eta horrek eragin handia izan du 2020ko lehen sei hileko portzentajearen (% 4,6) jaitsieran

- ✓ **Automozioa**
Ekoizpen-lantegi guztiak zabalik daude. HYUNDAIK apirilaren 14an ireki zituen bere lantegiak, Škoda Auto izan zen bigarrena, zeinak apirilaren 27an ekin baitzion ekoizpenari, eta TOYOTA-CITROEN-PEUGEOT-ek, aldiz, maiatzaren 25ean zabaldu du.
- ↓ **Pandemian zehar, sektoreko enpresen % 25ek ekoizpena gelditu dute eta % 60k murriztu.** Fabrikazioa murriztu egin da 2020ko martxoan eta apirilean, zehazki, 170.000 auto gutxiago egin dira (urteko ekoizpenaren % 12 da hori). Autobus fabrikatzaileei dagokienez, IVECOk maiatzaren 4an berrekin zion ekoizpenari, SOR Libchavy enpresa ez da gelditu, eta ezta ere ŠKODA TRANSPORTATION eta TATRA TRUCKS kamioi fabrikatzailea
- ↓ **Logistika sektorea**
Oro har murriztu egin da, batik bat automozioan, eta kalkulatzen da murrizketa % 10ekoa izango dela 2020an. Pandemiak eragin handia izan du Txina eta Txekiar Errepublikaren arteko inportazio eta esportazioetan, % 75 murriztu direlarik aurreko urtearekin alderatuta
- ✓ **Garraioa**
Aireko garraioa oso mugatuta dago, eta beraz, itsasontzien gaitasuna aprobeztatzen ari dira. **Janari eta elikadurako produktuen banaketa: % 50 – 120 handitu da aurreko urtekoarekin alderatuta**
- ↓ **Ondasun higiezinak**
Alokairu eta erosketekiko interesa gutxitu egin da. Etxebizitzaren eskaintza % 15 handitu da 2020ko martxoan, Pragan % 40raino. Kalkulatzen da prezioak merkatu egingo direla pandemiagatik
- ✓ **E-commerce**
Elektronika, kosmetika, liburu, pelikula, jolas eta etxerako edo lorategietarako produktuen salmenta izugarri hazi da. Onlineko salmentan diharduten tokiko taldeak ere ugartu egin dira. Kalkulatzen da aurten % 18 inguruko hazkundea izango duela. Hauxe da, logistikarekin batera, enplegu hazkunde handiena izan duen sektorea



Inpaktua zerbitzuetan

↓ Ostalaritza sektorea

11.000 milioi CZK-rainoko galerak izan ditu. Gerta liteke establezimenduen % 50 ixtea egoera honen ondorioz. Hotelak eta jatetxeak maitzaren 25ean ireki dira berriro. Kalkulatzen da jatetxeek 23 mila milioi CZK-ko galerak izango dituztela (850 milioi EUR)

↓ Turismoa

Murrizketek indarrean jarraituko dute apirilaren amaierara arte; 142.000 milioi CZK-ko kostua izango dute eta 80.000 lanposturen galera eragingo dute turismo sektorean. Aurreikuspenen arabera, sektoreak 50 mila milioi CZK (1,8 mila milioi EUR) inguru galduko ditu 2020ko apirilaren amaieran. Diru-sarrerak % 5 murriztu dira turismo sektorean

✓ Denda elektronikoen kopurua bikoiztu egin da martxoaren 25eko, batik bat ondoko hauen salmenta: elikagaiak, maskotentzako jakiak eta apaingelako eta babeserako artikuluen salmenta


↓ Ekoizpena hazi egin da elikadura, farmazia eta papergintza sektoreetan. Orobat hazi dira zerbitzu informatikoak eta komunikazio-, posta- eta mezularitza-zerbitzuak

Ekoizpena % 15 murriztu da ingeniartzan, eramangarrien fabrikazioan, makina elektronikoetan eta freskagarrietan. Esportazioak bilakaera negatiboa izan du

Zerbitzuak % 10 baino gehiago murriztu dira martxoan, batik bat hotel eta jatetxeetan, zeintzuek euren diru-sarreraren erdia galdu baitute

Inpaktua finantza sektorean (merkatuak, bankuen sektorea)

- ❖ Txekiako Banku Nazionalak epemuga handiagoarekin negoziatuko ditu herrialdeari laguntzera bideratutako Estatuko bonuak
- ❖ Txekiako Banku Nazionalak 0,75 puntu murriztu du interes-tasa % 0,25eraino
- ❖ ČNB-k espero du ekonomia % 8 uzkurtuko dela 2020an
- ❖ Behera egin du kutzazain automatikoetatik ateratzen den esku-diru kopuruak eta, aldiz, gora egin du txartel bidezko ordainketa kopuruak; zehazki, 10 txekiarretik 8k txartelarekin ordaintzen dute



EUSTE-NEURRI EKONOMIKOAK

Neurri fiskalak

- ❖ **Zerga salbuespenak:** herritarrak salbuetsita daude zerga hauek ordaintzetik: pertsona fisiko eta juridikoen errentaren gaineko zerga, Ondasun Higiezinaren jabetzaren gaineko zerga eta Ondasun Higiezinak erostearren gaineko
- ❖ **Besta zerga batzuen edo zigorren ordainketak atzeratu egin dira eta bestelako neurriak ere abiarazi dira:** *Loss carryback* (galerak itzultzea) direlakoak sartu dira indarrean, zerga betebeharrak ez betetzeagatiko isunak barkatu dira eta eten egin da erakundeek EETaren fase guztietan eginiko salmentak elektronikoki erregistratzeko betebeharra



Finantzaketa pribatua eskuratzea (erakundeak eta beste batzuk)

- ❖ Txekiako gobernuak luzapen bat onartu du maileguen ordainketetarako. Txekiako Banku Nazionalaren aterkipean, posible da banku komertzialekin negoziatzea mailegu eta kredituen ordainketak 3-5 hilabetez atzeratzeko aukera (ENPRESAK ETA PARTIKULARRAK)



Dirulaguntzak eta mailegu publikoak

- ❖ Gobernuak 6.000 milioi CZK-ko krisi-neurriak onartu ditu, Nekazaritza Ministerioak hala proposaturik
- ❖ Momentuz hiru mailegu- eta berme-programa prestatu dira: COVID I eta COVID II Txekiako ETEentzat eta COVID Praga programa hiriburuko ETEentzat. Maiatzean COVID III berme-programa abiaraziko da, zeinak 150.000 enpresa eta autonomorentzako laguntzak banatuko baititu Txekia osoan. Estatuak 150.000 milioi CZK esleitu dizkio programa horri
- ❖ 300.000 milioi CZK-ko defizita (10.900 milioi euro) onartu da pandemiaren ondorioak arintzeko



Lan-indarra


- ❖ **Kurzarbeit:** krisian zehar, langileek beren enplegua mantenduko dute baina lanaldi murriztuan, eta Estatuak enpresari lagunduko dio soldataren zati bat ordaintzen
- ❖ **Antibirus programa** *Kurzarbeit* programaren barruan dago eta enplegua babesteko balio du. Gaixotasunaren hedapenak enplegatzaileen jarduera ekonomikoa mehatxatzen badu, enplegatzaileek soldatak ordaintzeko zenbateko osoa edo zati bat jasoko dute, baldin eta frogatzen badute lanerako oztupoak COVID-19aren ondorio direla. Txekiako gobernuak abuztuaren amaierara arte luzatu nahi du programa. Maiatzaren 21era arte 631.200 dirulaguntza ordaindu dira (martxo eta apirilean), 5,43 mila milioi korona txekiar guztira (201.000 EUR)
- ❖ **AUTONOMOAK:** gobernuak 25.000 CZK-ko ordainketa bakar bat egingo die koronabirusaren krisiaren eragina jasan duten autonomoei, eta horrekin batera beren jarduerengatiko zergen ordainketa atzeratuko die. Kopuru horrek beren gastuak estali behar lituzke 2020ko 3/12tik 4/30ra bitartean. Maiatzeko 15.000 CZK jaso behar lituzkete. Pandemia hasi zenetik, 15.838 autonomok (2018an baino % 46 gehiagok) utzi dute beren jarduera



MUGAK

- ✓ **Merkatu-gaien garraioak** berdin jarraitzen du lanean
- ↓ Burdinbide, autobus eta garraio publikoko zerbitzuak normaltasunera itzultzen hasi dira, eta baita aireko garraioa ere (jomuga estrategikoetaranzko lehen hegaldiak maiatzaren 18an egin ziren)

Biztanleriaren mugikortasuna

- ✚ Larrialdi-egoera 2020ko maiatzaren 17an bukatu zen 
 - ✓ Ikastetxe eta unibertsitateak pixkanaka irekiko dira. Unibertsitateko azken ikasturteko ikasleen eskolak apirilaren 27an hasi ziren, eta ekainaren 8tik aurrera ikasturte guztietako ikasleak joan ahal izango dira eskolara
 - ✓ Maiatzaren 25etik aurrera saltoki guztiak ireki ahal izango dira
 - ! Maiatzaren 25etik aurrera herritarrak kalera irten eta bulegora joan daitezke maskararik gabe, 2 metroko gutxieneko distantzia mantenduz
- Maskara derrigorrez erabili behar da barnealdeetan eta garraio publikoan

Mugetako egoera

- ✓
 - ❖ Bertan behera gelditu dira mugikortasun-murrizketak
 - ❖ Apirilaren 24tik aurrera, herritarrak (txekiarrek zein bertan bizi diren atzerritar legalak) herrialdetik atera ahal izan dira irteera justifikatu gabe, baina Txekiar Errepublikara itzultzean koronabirusaren test negatiboa aurkeztu behar izan dute, edo bestela, berrogeialdian gelditu bi astez
 - ❖ Ekainaren 15etik aurrera ez dago murrizketarik bidaiatzeko. Osasun Ministerioak hiru taldetan sailkatu ditu Europako herrialdeak, kutsatzeko arriskuaren arabera. Txekiarrek eta euren bizileku iraunkorra Txekiar Errepublikan duten pertsonak itzuli ahal izango dute kutsatzeko arrisku baxua eta ertaina duten herrialdeetatik eta ez dute aurkeztu beharko COVID-19a detektatzeko test negatiborik
 - ❖ Espainia arrisku ertaineko herrialdeen multzoan dago
 - ❖ Txekiako gobernuaren arabera, Suedia eta Erresuma Batua dira kutsatzeko arrisku handiena duten Europako herrialdeak
 - ❖ Atzerritarrentzako sarrera mugatuta dago. Posible da herrialdean sartzea jarduera ekonomikoak edo ikasketak egiteko eta familiako arazoengatik, baldin eta test negatiboa eta beharrezko beste dokumentu batzuk aurkezten badira. Kutsatzeko arrisku baxua eta ertaina duten herrialdeetako atzerritarrek ez dute aurkeztu beharko COVID-19a detektatzeko test negatiborik ekainaren 15etik aurrera
 - ❖ Pragako aireportuak bakarrik daude zabalik
 - ❖ ČSA aire-konpainia txekiarra berriro hasi da funtzionatzen maiatzaren 18an
 - ❖ Berriro jarri dira martxan jomuga estrategikoetarako hegaldiak



- ❖ Maiatzaren 26tik aurrera berriz ireki dira Alemania eta Austriaren arteko muga guztiak; ausazko kontrolak jartzen dira kontrol erregularrak jarri beharrean
- ❖ Aurreikusten da Poloniarekiko mugak ekainaren erdialdean irekiko direla berriro
- ❖ Maiatzaren 26tik aurrera, Eslovakia nahiz Hungariako herritarrek eta Txekiar Errepublikako bizileku-baimen iragankor edo iraunkorra dutenek posible dute Txekiar Errepublikan sartzea 48 orduz COVID-19a detektatzeko test negatiboa aurkeztu beharrik gabe
- ❖ Nazioarteko autobus eta tren bidezko garraioa berriro abiaraziko da maiatzaren 11tik aurrera
- ❖ Mugetan kontrolak egingo dira ekainaren 13ra arte